

Oharra



Josteko ikastaroaren hasiera. Urtero bezala haurten ere josteko ikastaroari hasiera emango diogu Urriak 2an. Ikastaroa asteazkenero izango da, Bizi Nahi jubilatuko elkartearen 14:45etatik 16:45tara.

Elikagaien bankutik Itsasondora iristen diren elikagaiak sailkatzeko bolondresak behar dira. Informazio gehiagorako udaletxeko Gizarte Zerbitzura deitu 943 881 170; Asteazkenak (09:00-14:00) eta Ostiralak (09:00-13:00).

Luis Aizpuru-ren esaera zaharren bilduma

Luis Aizpuruak, urte luzeetan zehar ezagutu eta entzun dituen esaerak jasotzeko afizioa izan du betidanik. Oraingo honetan ordea, hauek denak antolatuta eta bilduma egin du. Bilduma honen ale bat Itsasondoren esku utzi nahi izan du; bilduma lan hau Itsasondoko liburutegian dago ikusgai edonoren eskura. Bertan ezagunak egiten zaizkigun esaerekin batera galtzearen dauden, esaera, hitz eta usadioak ere aurkitu ahal izango ditugu. Mila esker Luis eta bejondeizula.

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Alberto Ruiz
Aranzadi Elkartea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Ekaitz Arruti
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Azurmendi
Iker Mendizabal
Iker Uson
Iratxe Ibarra
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Ignacio Duhau
Jose Luis Aranburu
Kike Fernandez
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Pako Zubeldia
Rosi Noguera
Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**


Paper birziklatuan egina



itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (((22. zk))) Iraila-Abendua 2013

Espaloiak oinezkoentzat eginak daude, ez apartatu bertan!



Miguel Gorostidi gaztetan okindegian lanean
Ibilbidea: Segura-Santa Barbara-Segura
GoiEner, gaurko modelo energetikoaren alternatibagatik

Kultur Agenda

URRIA

- **Urriak 2**, eskulan ikastaroaren hasiera jubilatuen egoitzan, 14:45etatik 16:45etara asteazkenero
- **Urriak 4**, festetako bideoaren emanaldia Gaztelekuan 18:00etan
- **Urriak 14**, arratsaldeko 7etan Goiener hitzaldi aurkezpena ludotekan
- **Urriak 19**, mountain bike travesia, 16:00 Itsasondoko plazatik abiatuta
- **Urriak 23**, liburutegiaren nazioarteko eguneko ekintzak
- **Urriak 29**, odol emailak

AZAROA

- **Azaroak 8**, web orri berriaren aurkezpena
- **Azaroak 25**, emakumeen tratua txarren aurkako eguna
- **Azaroak 29**, ez gara Palestinaz ari, antzerkia
- **Azaroak 30**, talo festa

ABENDUA

- **Abenduak 3**, Euskeraren Eguna
- **Abenduak 24**, Olentzero

Aldizkarian parte hartzea

Norbaitek aldizkarirako proposamenen bat badu, artikuluren bat idatzi nahi badu edo argazki, bidai, ikastaro, afizio edo hobby-ren baten inguruko informazioa badu edo besterik gabe zerbait kontatu nahi badigu jarri dadila gurekin harremanetan. 943 881170 telefonoan edo itsasondo2.0@itsasondo.net helbidean aurkituko gaituzue.

truke estudio grafika



Udan jaiak nonahi izaten direla esatea gauza jakina da; Itsasondon, Andramari jaiak, Urkiko jaiak eta Iraileko jaiak horren lekuko izan dira; jai giro bikainean eta ekintzaz josiak egon dira parte hartu nahi izan duten guztientzat. Jaiak herriaren izaeran zati garrantzitsua jokatzen dute eta aspaldiko garaietatik ondo sustraiturik dauden ekimenak direla ezin ukatuko dugu. Xanti eta Iñaxiok gaztetan ezagututako Itsasondoko jaiak hitz egin digute “zaharrak berri” atalean, ilusioz bizitako egun haien testigantza izan da elkarrizketa hau. Miguel Gorostidi Urkiko semeak kontatzeko dituenak ere ez dira gutxiagorako. Ziur gaude interesgarri gertatuko zaizkizuela bere bizitzako pasadizo eta pasarteak.

Festak eta pasadizoak alde batera utziaz gai serioagoak ere baditugu 22. ale honetan: krisia luze doa eta hainbat familiren egoera lazarria xamurtze aldera, Gizarte Sailekoek “diru sarrerak bermatzeko errenta”ren inguruan informatzen gaituzte. Pentsiodunak eta herritarrek oro har, ez daude prest pentsioetan egin nahi dituzten murrizketak onartzeko eta murrizketa horien aurka mobilizatzeko deia egiten dute.

Aranzadik Itsasondoko izaki bizidun bereziaz hitz egiten digu eta bertako fauna zein flora berezien euskarria zaintzearen garrantziaz. Goiener kooperatibaren asmoa ere energia berriztagarriak merkaturatu eta ekoiztuaz natur baliabideak zaintzea da; horren inguruko informazio interesgarria topatuko duzu. Natura zaintzeaz ari garelarik, landareen txokoa konpostajeaz hitz egingo digute.

Askorentzat ikasturte hasiera dela ezin ahaztu: eskola, haur-eskola, haur-txoko eta gazte lekuak ere gogo berriz irekiko dituzte ateak. Eta ikasturte hasiera ez haurrentzat bakarrik: euskara ikastaroak, mintzalaguna, eskulanak eta beste hainbat ekintza ere martxan dira. Udaletxeko lehen solairuko lanak ere hasi dira; hau eta gehiago udaleko berrietan. Eta ez genuke ahaztu nahi Itsasondoko gazteek Pirritx eta Porrotxekin elkartasunez eta beraiekin pasatako uneak eta jasotako baloreak gogoratuz egin duten artikulua. Pailazoak ilegalizatu nahian aske dabiltzan pailazoen paradoxa. Barre egitea ez da delitu, Katxi porreta! Marrubizko mu-
xuk denontzat. ■



- 03-06. **Udaleko berriak**
- 07. **Agenda 21:** Gaurko modelo energetikoaren alternatibagatik
- 08-09. **Haurreskola-eskola:** “Handitzen, handitzen...”
- 10-13. **Elkarrizketa:** Miguel Gorostidi
- 14-15. **Aranzadi:** Itsasondoko izaki bizidun bereziak
- 16-17. **Gazteria**
- 18. **Gazte asanblada:** Sudur gorrien iraultza
- 19. **Kale inkesta:** Hizkuntzak komunikazioaren giltzarri
- 20. **Jubilatuak:** Pentsio sistemaren alde eta gizarte murrizketen kontra
- 21. **Herrira:** Konponbideari erasorik ez!
- 22. **Ongizatea:** Diru sarrerak bermatzeko errenta
- 23. **Zaharrak berri:** Garai bateko festak
- 24-25. **Ibilbidea:** Segura-Santa Barbara-Segura
- 26. **Informatika**
- 27-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

DOINUA: Haizea dator iparraldetik

*Udaletxeko kultur gunean
berrizatzeko lanetan
aparkatzeko ohitura onak
dira denon mesedetan,
lur pribatuak marka dituzagun
GPS-ren esanetan
eta ikusi nola genbiltzan
garai bateko festetan.*

*Ume dexente bidean eta
non dira Pirritx ta Porrotx?
Jubilatuak kezkatu oso
pentsioak murriztu datoz,
Seguritan Santa Barbara
ez izanarren bidemotz
Gorostidiren ogia jenez
helduko gera animoz.*

Udal erabakiak

Uztailaren 1 In egindako udal batzarrean, besteak beste honako erabakiak hartu dira:

Udaletxearen eraberritze obrak

Udaletxeko 1. solairuko KULTUR GUNEA aretoko obrak kontratatatzeko eskaintzak aurkezteko gonbidapenak egin ondoren, bi proposamen jaso dira, eta horiek baloratu ondoren, Udalak obrak Urbycolan S.L. enpresari esleitzea erabaki du, 186.746,77 euroan.

Emakumeen egoera jakiteko azterketa


Goierrin indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera jakiteko diagnostikoa, arreta eta koordinazio prozesua abian jartzeko, Farapik egindako proposamena aurrera eramatea erabaki dute Goierriko udal guztiek, eta Itsasondoko Udalak ere prozesu horretan parte hartzea erabaki du.

Diru-laguntzak

Azken hiruhilabetearen honako diru-laguntzak tramitatu dira erakundeetan: Eskatu direnak:

EVERi Nagusia 7ko 1 eta 2. solairuko leihoak aldatzeko.

Eusko Jaurlaritzari Ingurune Naturala eta Landa Eremuaren kontserbaziorako ekimenak gauzatzeko 2013-2015 programa egiteko.



Lortutako laguntzak:

Teknologia berriak atalean, udal elkar-teak sarearen bidez konektatzeko programarako Aldundiak 11.404,17 euroko laguntza eman du.

Hondakinen prebentzioa eta berrera-bilpena sustatzeko ez da diru-laguntzarik lortu.

Haur eta gazteentzako jarduerak egiteko 6.400 euroko laguntza jaso da.

Kultur ekitaldi eta jaialdiak antolatzeko 1.931 euroko laguntza jaso da.

Itsasondo 2.0 aldizkaria egiteak sortzen dituen gastuak finantziazteko 1.500 euro.

Eusko Jaurlaritzari euskarazko ekin-tzak gauzatzeko 3.165 euro.

Beste zenbait erabaki:

Herri Eskolako eta haurtzaindegiko gar-biketa berezia egiteko pertsona bat kontratatu da abuztuan, jardunaldi erdiko kontratuarekin. Lan kontratua 15 egune-koa izan da.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua Arreta Zerbitzuak S.L. enpresari esleitzea erabaki da.

Obra txikiak egiteko jasotako baime-nak onartu dira; guztira lau izan dira.

Obra handiak atalean eskaera bat izan da eta onartu egin da.

2013ko 2. hiruhilabetea ur errolda onartu eta kobrantza aldian egon da, 2013ko abuztuaren 30a bitarte.

Dicastillo- Itsaso 400 kw-ko linea elektrikoaren kontra Lurrarekin bat El-karteak Gobernuaren Ordezkaritzaren aurrean aurkeztu duen alegazioarekin bat egitea erabaki da.

Euskara ikastaroa egiteagatik diru-laguntza bat onartu da.

Herriko edateko ur sarean egon zite-keen jarioak antzemateko azterketa egin da abuztuan. Konpondu beharreko hiru jario antzeman dira, eta dagoeneko horietako bi konponduta daude.

Landa eremuko sailak GPS bidez fin-katzeko proiektua aurrera eramatea erabaki da; lanak Gipuzkoako Baso Elkar-teari esleitu zaizkio.

Bake epaile titularraren eta ordezk-oaren izendapena proposatzeko eskaria jaso zen Euskal Herriko Goi mailako epaitegitik. Hiru bizilagunen eskariak jaso ziren eta hautaketa egin ondoren, irailaren 12an bidali da udal proposa-mena aipatu epaitegira.

Bestelako informazioa

Estatuko abokatuak Donostiako Admi-nistrazioarekiko Auzien Epaitegian erre-kurtsoa aurkeztu zuen Itsasondoko Udalaren kontra, udaletxeko fatxadan espainiar bandera jarri gabe zegoelako. Udalaren defentsa daraman abokatuak adierazi duenez, demanda erantzuteko errekerimendua ekainean jaso zuen; beraz, epaia oraindik zertxobait atzera-tuko da. ■

Errezeta elektronikoa



Cristina Arrastoa Itsasondoko farmazialariarekin egon gara, Errezeta Elektronikokoaren inguruko argibideak eman diezazkigun. Itsasondoko eta Euskal Autonomi Erkidegoko hainbat herritan (ez guztietan) ekainean errezeta elektronikoa indarrean sartu zenetik hainbat gauza aldatu dira gure egunerokotasunean.

Zer da errezeta elektronikoa? Zertan datza?

Ekainera arte gaixorik geundenean medikuarengana joan eta medikamenturen bat behar genuenean, medikuak papezko errezeta bat egin eta inprimatzea zen arruntena, eta horrekin farmaziara joaten ginen medikamentua jasotzera. Gaixo kronikoek, berriz, erizainarengana joan eta tratamenduarekin jarraitzeko hurrengo hilabeteetarako errezetak eskuratzeko genituen. Gaur egun, sistema aldatu egin da: kontsultara joaten garenean eta medikamenturen bat behar dugunean, medikuak ordenagailuaren bidez programa informatiko batean apuntatzen du, eta ez digu inongo paper edo errezetarik ematen. Osasun txartela eskuan, farmaziara joaten gara, eta txartela farmazeutikoari ematen diogunean, berari ordenagailuan azaltzen zaio medikuak eman dizkigun medikamentuen zerrenda.

Hala ere, agian aldaketa handiena gaixo kronikoena izango litzateke: hauek lehen erizainarengana joan behar izaten zuten aldiro-aldiro errezeten bila, beraien tratamenduarekin jarraitu ahal izateko; gaur egun, tratamenduan aldaketarik ez dagoen bitartean, hori ez da beharrezkoa, farmazialariak une oro baitaki zer eta noiz eman behar dion gaixo bakoitzari.

Aldaketak ematen dira bisatua behar duten medikazio berezietan ere, gaur egun ez baita beharrezkoa gaixoa errezetarekin bisatu bila joatea, edo medikuak errezeta Zumarragara bidali eta bertatik jasotzea, baimena ordenagailu bidez sinatzen baita, eta horrek azkartasuna eta erosotasuna dakartza.

Sarri jubilatuekin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin lotzen dugu errezeta elektronikoa, baina hau ez da horrela, ezta?

Ez, gaur egun errezetatun medikamentu bat behar dugun bakoitzean, haur, gazte zein pentsiodun izan, farmaziatik errezeta elektronikoa bidez jasoko dugu medikamentua. Horregatik, gaur egun ezinbestekoa da txartela eskuan dugula joatea, bai medikuarengana bai eta farmaziara ere.

Errezeta elektronikorekin batera abian jarri da koordainketa edo medikamentuen kopagoa. Zer suposatzen du honek orain arte medikamentuak dohainik jaso izan dituzten pentsiodunentzat?

Orain arte pentsiodunek ez zuten deus ordaindu behar izan medikuak errezetatzen zizkien medikamentuengatik, dohainik eskuratzeko zituzten. Uztailaren, aldiz, kopagoa edo koordainketa jarri zen abian, eta horrek pentsiodunak medikamentuak ordaintzera behartzen ditu.

- Urtean **18.000 euroz azpiko** pentsioa jasotzen duten pentsionistek medikamentuen kostuaren **%10** ordaintzen dute, beti ere hilabetearen gehienez **8,14€** ordainduko dituztela kontuan hartuta.
- Aldiz, **18.000-100.000€** bitarteko pentsioak jasotzen dituztenek medikamentuen kostuaren **%10** ordainduko dute, eta topea **18,32€** izango da.
- Gizarte Segurantzaren modu **aktiboan** dauden herritarrak, aldiz, **%40** ordaintzetik **%50** eta **%60** ordaintzera pasa daitezke, beti ere irabazten duten soldataren baitan.

Zer arazo sortu ditu horrek herritarrengan? eta zuei?

Hasieran, arazo informatikoak zirela eta, hainbat jenderi ez zitzaion farmaziako pantailan medikamentuen zerrenda ateratzen, eta informatikoekin batera arazo horiek konpontzen joan behar izan genuen. Pixkanaka, arazoak konpontzen joan dira, eta gaur egun, aldiaren behin arazotxoaren bat izaten badugu ere, ez da ohikoena.

Anekdotaren bat?

Ez dakit anekdota hitza erabili daitekeen; izan ere, larriegi iruditzen zait horrela deitzeko. Konturatu gara hainbat pentsionistak hainbat medikamentu hartzeari utzi diola, ordaindu ezin dutelako; edo eta aurreztu behar dutela esaten dute, erosi ahal izateko. Horrek hainbat gaixok tratamendua ez jasotzea dakar. Halaber, uste dut pentsionisten artean koordainketak nola funtzionatzen duen ulertu ez duenik ere badela, eta dena baino gehiago ordaindu beharko duelako beldurrez ez duela tratamendurik hartzen.

Bestetik, badira hainbat medikamentu lehen errezeta bidez medikuak preskribitzen zituenak, eta orain Gizarte Segurantzatik kanpo geratu dira. Medikamentu horietan asko nabaritu dugu jendeak erabiltzeari utzi diola.■

1 Zer da e-rezeta?

Errezeta elektronikoa da, beldur gaituen gaixotasunaren tratamendua emateko erabiltzen den sistema. Errezeta elektronikoa da, beldur gaituen gaixotasunaren tratamendua emateko erabiltzen den sistema. Errezeta elektronikoa da, beldur gaituen gaixotasunaren tratamendua emateko erabiltzen den sistema.

2 Zer onura ekarriko dizkiet?

- Errezeta elektronikoa, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.
- Informazioa zehaztasun handiagoz ematen da, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.
- Seguritatea handiagoa, osasun-profesionalak jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.
- Medikamentuen erabilera, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.
- Osasun-profesionalen gaitasunaren berrantolaketa, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.

3 Nola funtzionatzen du?

Hurrengo mediku-kontsultan sartu ostean, medikuak errezeta elektronikoa ematen du, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.

4 Zalantzarik?

Jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.

5 Auzi

Errezeta elektronikoa, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar, jendea ez baita inprimatutako errezeta behar.

Errezeta elektronikoa

e-rezeta

Orain, zure txartela izango da zure errezeta

Osakidetza

GPSa eta landa eremuko lursailak

Irailaren 12an, Itsasondoko Udaletxean, 70 bat lurjaberen aurrean, GPS bidez udalerriko landa eremuko lursailak neurtzeko lana burutzeko Goimen Elkarteak diru laguntza lortu ondorengo bilera egin zen.



2014ko urria bitarteko epean dagoen proiektu hau gauzatzeko ildo nagusiak zehaztu ziren, lursailen jabeek egin beharrekoak, eta ondoren, lan hau burutzeko aukeratu den Gipuzkoako Baso Jabeek Elkarteak egingo dituenak.

Lursailen jabeek beren lursailletako mugak aurkitu, mugakideekin adostu, esola batez edo identifikatu eta lursailaren perimetroa GPS bidez hartzeko oinezko bidea garbitu beharko dute. Hori egin dutela Udalerri jakinarazi ondoren, teknikoak GPS bidezko datuak hartuko ditu. Lan hori egiteko, Udalak gaur egun beren izenean agertzen diren partzelen

eta mugakideen datuak emango dizkie. Emandako diru laguntza kontuan harturik, lursail jabe bakoitzak ordaindu beharko lukeen diru kopuruaren berri ere eman zitzaion.

Itsasondoko landa eremu katastroa 9.020 lursailetan banatuta dago, eta guztira 150 bat titular dira.

Landa eremuko katastroa orain dela 70 bat urte egin zen; orduan airetik aterata ziren ortoargazkietan lursail jabeek beren jabetzak markatu behar zituzten. Ordudanik zuzenketa asko egin da, baina batez ere, baso landarea zegoen edo dagoen zatietan akats asko antzematen dira. GPS bidez lursailak

markatzeko proiektu honek kontrako abiapuntua hartzen du, lursaillean bertan mugak aurkitu behar dira, eta ondoren, planoetara igotzen.

Lana amaitu ostean, lursail jabe bakoitzari txosten bat emango zaio, beren lursailak identifikatuz, bakoitzaren azalera eta mugen kokapen zehatza gaur egungo ortoargazki batean zehaztuta.

Mendi lurrak diru baliorik ez daukala esaten den garai hauetan lan hau egiteak berebiziko garrantzia du. Gure nagusiek mugak ondo ezagutzen dituzte, eta finkatzen ez badira, galdu eta hainbat liskar eta sesio sortzeko arriskua izango da. ■



itsasondoko2.0 ((22.zk))

Gaurko modelo energetikoaren alternatibagatik

GoiEner, energia berriztagarriak ekoiztu eta merkaturatzea helburu duen goierriko kooperatiba.

Energiaren merkaturak liberalizatu zenetik, energia elektrikoa kontsumitzeko bideak zabaltzen dira, esaterako dena ez da Iberdrola, Endesa, Gas Natural Fenosa edo Eon bezalako enpresak. Badira energia elektrikoa merkaturatzen duten enpresa txiki asko. Horietako bat, Goierriko kerkatua dagoen GoiEner kooperatiba da.

2011 urte amaieran, Joanes Maiza, kooperatibaren "ideologoa", GOIEKlra, Goierriko Garapen Agentziara, laguntza eta aholku bila gerturatu zen. Europa mailan, energia berriztagarriak oinarritzat zituzten proiektu ezberdinak ezagutzen zituen, eta Katalunian eredu berdina zuen proiektu bat sortu berria zegoela ikusirik, Euskal Herrian horrelako egitasmo bat martxan jartzeko apustua egin zuen. Egitasmoaren ideia ahoz-ahoz zabaltzen joan zen heinean, herritar ezberdinak, bolondres gisa kooperatibaren osaketan parte hartzen hasi ziren, 2012ko ekainean, 30 bazkide sustatzailerik (asko goierriarrak), irabazi asmorik gabeko, energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba eratu zuten.

Kooperatibak bi ardatz ditu. Batetik, energia berriztagarria komertzializatzea eta, bestetik, energia berriztagarria ekoiztea. Kooperatibaren helburua, bazkideek kontsumitzen duten energia kopurua, kooperatiba berak bere instalakuntzen bitartez sortzea da.

Lehendabizi, energia merkaturatzen duen jarduera abian jarri da eta etorkizunean ekoizpen jarduera martxan jarriko da. Horrela, GoiEnerren bazkideek, etxeko argindarra, betiko moduan, instalakuntzan inongo aldatarik egin gabe eta energiaren prezioan aldaketarik egon gabe, kooperatibaren bitartez jaso dezakete.

Labur azalduta, kooperatibak bazkideek kontsumitzen duten energia adina merkaturatzen du. Merkaturatzen jatorri ezberdina duen energia dago; nuklearra, gasetik edo ikatzetik sortutakoa.. eta iturri berriztagarrietatik sortutakoak "energia berdea" deritzen taldea. Kooperatibak jatorri berriztagarria duen energia soilik erosi eta komertzializatzen die bazkideei. Hala ere, merkaturatzen dena berriztagarria izanda ere, ezin daiteke ziurtatu etxe bakoitzeko entxuferra iristen den energia zein taldekoka den, sarean dena nahastu egiten baita. Horregatik, energia erosteko, kooperatibak erosten duen energiak ziurtagarri berdea izatea, jatorri berriztagarritik datozela ziurtatzea, eskatzen du. Ondoren, bazkideei, kontsumitutako energia fakturatzeko, energia berdeko ziurtagiria ematen zaie, kontsumitzen duten energia kantitate hori iturri berriztagarrietatik soilik datorrela ikusi dezaten. Era horretan energia berriztagarrien sorkuntza bultzatzen da.

Etxera iristen den energia, berriztagarria dela ziurtatzeko aukera bakarra, norberak bere etxean energia berriztagarria ekoizteko instalakuntza bat edukitzea da.

Mozkin asmorik gabeko kooperatiba izanik, elektrizitate berdea merkaturatuz lorturiko etekinak kooperatibara itzuliko dira berriz, bazkideek erabakiko dute batzarretan zertara bideratu diru horiek.

Era berean, bazkideek sorkuntza berriztagarriko egitasmoetan inbertitu ahal izango dute, kooperatibak berak kontsumituko lukeelarik ekoizpen hori.

GoiEner kooperatibak tokiko ekonomia bultzatzen duen eragilea da. Horregatik, penintsula osoan merkaturatzea posible izanagatik ere, Euskadin zentraltuko da, estatu mailan tokiko mailako beste kooperatibak bultzatzen ari delarik.

Gaia oso mamitsua izanik, energia berriztagarrietan eta gaur egungo merkatu elektrikoaren egoera ezagutu nahi duenak, laister Itsasondoko GoiEnerreko kideek egingo duten hitzaldira gerturatu daitezke. ■



Hitzaldia
GOIENER kooperatibaren aurkezpena
Azaroaren 14. 19:00etan
Itsasondoko Udaletxean

itsasondoko2.0 ((22.zk))

“Handitzen, handitzen...”

Iraileko lehen edo bigarren egunean iritsi zitzaigun udaletxetik aldizkarirako artikulua eskaera. Bakoitzari idatzi bat egiteko eskatu bazitzaigun ere, gutuna iritsi zenean Amaia eta biok (2 urtekoen tutorea) elkarrekin ginen, eta artikulua elkarrekin idaztea pentsatu genuen. Badaukagu zer esan eta zer idatzi!



Duela bost urte, HAUR ESKOLAK eskolarekin hartu-emana beharrezkoa ikusi zuen, haurrak eta eskolaren arteko bidea motzagoa izan zedin. Garrantzitsua iruditu zitzaigun haurrek bizi izaten dituzten bi etapa ezberdinei jarraipen bat ematea, lotura bat.

Herri txikia gara, eta nortasun horrek hori egiteko aukera ematen digu.

Horrela, denboraldi batez 2 urteko gelako haurrekin batera psikomotrizitate saioetara joaten aritu gara, nahiz batzuetan erraza gertatu ez. Horrez gain, kurtso bukaera iristear izaten den garaian, nola-baiteko egokitapena hasten dugu, haurrak 2 urteko gelara eramanez astean egun batzuetan. Eta gainera, iazko kurtso bukaeran eskolakoek egindako proiektuan parte hartzeko aukera ere izan genuen.

ESKOLATIK berriz, ekainean bilera orokor bat antolatu zen. Irailean bakarkako bilerak eta urrian orokorra egingo da, zein modutan joan den azaldu eta iradokizunak jasotzeko.

Honaino antolamenduari dagokionez.

Baina harago joateko aukera dugu, are gehiago **handitzen-handitzen** prozesuan daudenean. Beraz, ez dugu Haur Eskola eta Eskolataz hitz egingo baizik, prozesu honetan parte hartzen dugunon haur eta andereñoetaz. “Txikia” izateak nortasun eta izena izatea suposatzen baitu!

Ekaina-uztaila aldean, bi urteko gelan egongo nintzela jakinda, 4-5 aldiz gerturatu eta nirekin egongo diren bi sorgin ezagutzeko aukera izan nuen. Sartu bezain pronto, zein lasai eta zein eroso sentitu nintzen. Lurrean esertzeraz gonbidatu ninduten eta txikiak gerturatu-aldendu egiten ziren Amaia eta Xabiren begirada ezin galduaz. Zein ZIUR ikusten nituen!!!

Nire nahia, gogoa... Amaiaen tristura eta pozarekin nahastu ziren, bi urtetan izan zituen eta agurra ezta erraza gertatzen...

Askotan “nire haurrak” aipatzen zituen, eta hala sentitu eta azaltzen zuen. 2 urtez izan zituen, bere egunerokotasunean parte hartuz, elkar ezagutuz eta elkar eginez...

Berak AGUR esan behar eta ni ONGI ETORRIAK!!!

Gurasoei dagokionez, Ekainak 27an bilera orokor bat prestatu genuen. Bi gai nagusi mahai gainean jarri. Alde batetik, **Egokitapena zer zen eta zein modutan gauzatuko zen.** Bertan ATXIKI-MENTU hitza errepikatzen saiatu nintzen. Hitz potoloa eta niretzat behintzat hanbeste esanahi duena...

Definitu beharko banuke, *Haurrek, nahiz helduek, behar dugun harreman ziur eta maitasun beterikoa dela esango nuke, beharrezkoa gure egunerokotasunean, edozein egoerara egokitzeko egon behar duena.*

Haur eskolan ikusitakoa burura etorri zitzaidan...

Eta hantxen ni, sei gurasoeikin, ATXIKI-MENTU hori nola egingo nuen azaltzen saiatzen. Gogorrena, ez dela bapatean emango azaltzea izan zen.

Eta tarte horretan zer? Ba... negarrak, ixiltasunak, txupete eskaera... eta ni hor egongo naizela beren altxorrek JASOTZEN, atetik azaltzen diren arte.

Beren txikiak utziko dizkirate eta... nire buruari galdetzen diot... “lasaitu ditut? gustora joango ziren?”

Oporrak igaro eta bakarkako bilerak egiten ditugu. Bertan, haurrei buruz aritzen gara. Lasai egon gara, batzuetan bakarka beste batzuetan txikiekin.

Bi urteko gelakoen bilera politena dela esango nuke. Bertan beren haurra nolakoa den azaltzen baitute. Ez dira hitzak, baizik ahotsaren tonua, begien dizdira...

Besterik gabe...

Haur eskola aldetik ONGI ETORRIAK; Xanti, Mara, Ihintza eta Oihan.

Eskola aldetik; ONGI ETORRIAK Mara, Oier, Euri, Iraitz, Oneka, Urko, Aiora eta Julen eskola txiki honetara; non saiatuko garen zuen pertsonak aberastan, mundu zabala dela erakusten, kritikoak izaten, jator jokatzeko... eta handitzen, handitzen joaten... zuekin batera. ■

**Haurreskolan
Izen emate aldia:
Urriaren 1etik 10era**

Kurtsoa hasi berria dugu, lasai lasai gainera. Aurten 4 haur ditugu gurekin, goizeko 8 :15tatik 4 :15tara. Baina guraso zaretan edo bidean zaudeten guztiei jakinarazi nahi dizuegu, urriko izen emate aldia dagoeneko irikia dagoela. Hala ere oraindik haur gutxi ditugunez haurreskolan, kurtsoan zehar ere irikia izango dela gogorarazi nahi dizuegu eta noski, ordutegiak ere aldatu daitetzkeela gurasoen eskaeraren arabera.

Horregatik guregana hurbiltzera animatu nahi zaituztegu ! Edo bestela deitu 943164831 telefono zenbakira. Zuen zain gaude!!

Miren eta Amaia

Itsasondoko haurreskolako hezitzaileak



www.itsasondokoherrieskola.blogspot.com



Miguel Gorostidi

Gazte denboran okindegi batean lanean aritu zen itsasondarra

Interneten ikusitako bideo bati esker (<http://youtu.be/AbcCQbtjI2M>) jakin genuen Miguelen lanbideetako baten berri, eta ondorengo elkarriketan, lanbide horretako gora beherak eta bere bizitzako gertaera interesgarriak kontatzen dizkigu.

Non jaio zinen, Miguel?

Itsasondoko Urkiko auzoan jaio nintzen, Garaikoetxea ("Gakotxe") baserrian, 1940ko abenduaren 4an. Zazpi senide ginen, bost anaia eta bi arreba; orain, sei bizi gara. Zaharrena Joxe Ramon, Joxe (hil zena), M^a Jesus, Ignazio Mari, ni (Miguel), Jesus eta Gema.

Nolakoak izan ziren zure hasierako urte haiek?

Bederatzi urte egin baino lehen, Urkin ibili nintzen eskolan. Hasieran, apaiz batekin, baina denbora gutxiren ondoren, maistra edo andereño bat etorri zen, Ordiziakoa (Mertxe Txurruka), oraindik bizi da. Andereño hori bi urtez edo ibili zen gurekin, eta utzi zuenean, hutsune handia geratu zen eta Eskola Altagara joaten hasi nintzen.

Eskola Altaga?

Bai, bederatzi urte neuzkala, hamar bete aurretik, nire anaia Ignazio eta biok Altagan ospe pixka bat zeukan maisu batengana (Don Nicolas Del Amo) joaten hasi ginen. Itsasondotik ikasle asko joaten zen, adibidez gurekin Tomaseneko Garmendiatarrak ibiltzen ziren (Remigio eta Miguel M^a).

Gure gurasoek guk zerbait ikastea nahi zuten eta horrela "esfuerzo" handi bat eginez (hilerio dirua ordainduz), bi anaiek Altagan hasi ginen eskolan.

Nola joaten zineten?

Orain askotan esaten du jendeak, nola Afrikan mutikoek eskolara joateko 20 km egiten dituzten oinez, bada gu ere ez ginen gutxiago. Goizean Urkitik Altagako eskolara oinez joaten ginen, ondoren bazkaltzera Itsasondora jaisten ginen, "Konsejura", Prudentxik prestatzen zigun bazkaria, eta bazkaldu ondoren, Altagara igotzen ginen eskolara. Bukatu ondoren, arratsaldean Altagatik Urkira oinez. Horrela egunero-egunero, 13-14 km egiten genituen eta inongo arazo edo kexarik gabe, oso gustura, belar motzean hazitakoak ginen.

Eta Itsasondoko eskolan?

Altagan ibili ondoren, urte betez Itsasondoko eskolan ibili nintzen.

Eta ondoren?

Bost anaiek Tuterako Jesuiten Kolegio batetara interno joan ginen. Gure gaztelania maila oso kaskarra zen, bakarrik "si" eta "no" genekien esaten.

Tuterara gaztelania ikastera?

Diferentzia handi bat zegoen, jende ge-

hiena ikastera joaten zen, baina gu aldz lanera joan ginen. Lanaren truk ordubeteko eskola jasotzen genuen, baina lan asko egiten genuen, ez dakit "Asturiasko meatzarien" adina, baina hor nonbait.

Lan gogorra?

Pentsatu, hamahiru urte bete aurretik joan nintzen, eta ni baino zaharragoak ziren hirurogeita bost ikasleko jangela bat zaintzen ipini ninduten, horrez gain sukaldeko lanak, garbiketak... Nire lana goizero gosaria zerbitzatzea zen zaintzan nituen ikasle guzti haiei (nik bakarrik), ahal zen neurrian bero eta azkar. Bazkaria zerbitzatzeko bi edo hiru lagun elkartzen ginen, meriendarako berriro ni bakarrik eta afarian berriro bi edo hiru lagun.

Bigarren urtean, hirurogeita bost ikasle-tatik ehun eta berrogeita batera pasatu ziren, eta neukan edaderako ardura handia zen. Guretzako ez zen erreza izan Urkia bezalako auzo batetik Tuterara joatea.

Ikastetxe handia zen?

Kolegio hartan bostehun gizonezko sartzen ginen (ikasle, fraide eta langileen artean) eta oso polita zen, denetarik instalazioak zeuzkan: igerilekua, frontoia, futbol zelaia...

Zenbat denbora egin zenuen han?

Hamabi urtetik hamasei urtera, lau urte. Behintzat gaztelania ikasi nuen! Bertan geunden langile asko euskaldunak ginen (Azpeitia aldekoak batik bat) eta gure artean euskara erabiltzen genuen, jangelan ikasle gehienak gaztelaniarrak zirenez, derrigorrean ikasi genuen gaztelania.

Hango egonaldiak nahiko luzeak izaten ziren, eta urtean behin etortzen ginen etxera, uztaila hasieran; eta abuztu bukaeran, berriro buelta. Gabonak eta Aste Santuak han pasatzen genituen.

Gurasoek nola eramaten zuten?

Gure gurasoek zirenak eta ez zirenak pasatu zituzten, semeak kolegioan ez bazeuden, soldaduskan zeuden eta etxean lanerako jende gutxi zegoen. Gure gurasoek oso bizi gogorra eduki zuten eta oso zuzenak eta langileak zirenez, aurrera atera ziren.

Okindegiko lanean noiz hasi zinen?

Hamasei urterekin itzuli nintzen baserri eta nahiko libre nengoen, orduantxe kasualitatea gertatu zen: Ordiziako Santa Maria kaleko okindegi batetara gure gurasoek egurra eramaten zuten,



Bederatzi urte neuzkala, hamar bete aurretik, nire anaia Ignazio eta biok Altagan ospe pixka bat zeukan maisu batengana (Don Nicolas Del Amo) joaten hasi ginen.

Bost anaiek Tuterako Jesuiten Kolegio batetara interno joan ginen. Gure gaztelania maila oso kaskarra zen, bakarrik "si" eta "no" genekien esaten.

Okindegian lan egiten nuenean, jan eta lo bertan egiten nuen, eta askotan, familia ikusteko denbora askorik gabe.

garai hartan ogia egiteko labe guztiak egurrekin ibiltzen ziren, eta horren trukean okindegiko ogia ematen zieten gure baserriarako. Garai hartan, baserrian ere ogia egiten zen, baina tarteka okindegiko ogia gustura hartzen zen.

Horrela gure ama zena, asteazken batean Ordiziako azokara etorri zen eta egun batzuk lehenago, okindegiko nagusia zena, siestara joan eta bertan betirako "lo" geratu zen. Okindegian ofizial batek egiten zuen lan, baina momentu hartan nahiko justu zebilenez, gure amari galdetu zion "Aizu Maria, zuk hor seme batzuk badituzu eta, hau da pasatu zaiguna eta norbaiten beharrean gaudenez, bakarren bat libre egongo balitz" eta orduan kasualitatea gertatu zen ni egotea libre, eta horrela hasi nintzen okindegiko lanean, hamasei urtetatik hermeretzira.

Zein ordutegi zeneukaten?

Goizeko 3:00etatik 8:00etara ogia egiten eta erretzen pasatzen genuen, ondoren 8:00etatik 13:00etara ogia banatzen aritzen ginen. Bazkaldu eta 14:00ak aldera siesta, iluntzeko 20:00ak arte, hau zen lo gehien egiteko momentua. 20:00etatik 21:00era bitartean, ogia egiteko masa prestatzen genuen, ondoren afaldu, eta 22:00etan ohera, 3:00ak arte, eta berriro ogia egitera.

Benetan gogorra!

Horrela jai eta aste, deskantsurik gabe. Gainera, orduan hasi zen eztabaida jai egunetan deskantsu egitearena eta Angel Sukia monsinoreak lortu zuen jai egunak errespetatzea.

Zenbateko ogi kantitatea egiten zenuten?

Kalkulatzen dut, zaku t`erditik bi zakura irin erabiltzen genituela egunero, eta zakuak 100 kilokoak nola ziren, maneiatzeko oso deserosoak ziren. Ogi masa egiteko makina geneukan eta gainerako lan guztia eskuz egiten zen. Irina Nafarroako Campanas herritik ekartzen zen. Legami ama erabiltzen zen eta ogia guztiz naturala izaten zen.

Eta ogi klaseak?

Tamaina ezberdinetako ogiak egiten ziren, adibidez tabernetarako opil txikiak egiten ziren. Egiten genuen ogirik handiena kiloko barra zen eta kiloa pisatzen zuen. Ogi berezi bezala, moldeko ogia egiten genuen, baina asko ez. Ogi klase hau, udaro Lazkaora etortzen zirenen “Los Duques del Infantado” rentzat egiten genuen. Orduan oraingo aldean hobeto erretzen zen ogia. Okindegi guztietan egurrezko labeak zeuden, eta hori nabari zen ogia egiterakoan, ogia geldiago erretzen zen eta askoz hobeto. Orain, aldiz, labeak berotasun fuertegoa edukitzen dute eta ogia oso gaizki erretzen da.

Baserrian ere ogia egiten zenuten?

Baserrian, gure amak etxerako ogia egiten zuen, dena eskuz eta apartekoa zen. Nik jan ditudan ogirik hoberenak etxe-koak izan dira, amak esku oso ona zeukan. Egunero egiten zituen, goizean bi egiten zituen, bazkaltzeko, eta arratsaldean beste bi, afaltzeko. Garai hartan, baserri askotan labe handiak zeuzkaten eta aste osorako ogia erretzen zuten, baina gure baserrian ez zegoen labe handirik eta amak ekonomikako labea erabiltzen zuen. Baserrian eginiko ogiak legami gutxi edukitzen zuen eta ogi bikaina izaten zen.

Baserrian taloa ere jaten zen?

Bai, ogiaz gain talo asko jaten zen, taloa esnearekin esaterako. Gerra ondorenean, baserrietan kalean baino hobeto jaten zen, bertako jeneroa aprobetxatzen zelako. Gu eskolara joaten ginenean, sekula ez zitzaigun faltako ogitartekoa eta kaleko mutiko askok hori ez zeukaten.

Okindegitik etxera egunero?

Ez, okindegian lan egiten nuenean, jan eta lo bertan egiten nuen, eta askotan, familia ikusteko denbora askorik gabe. Ordutegia oso zorrotza zen eta ez zegoen tarterik Urkira joateko. Ez genuen izaten jai egunik eta ez oporrik ere, lanbide gogorra zen. Familiarekin egoteko aukera bakarra “eskapada” jo eta loa galtzea zen eta hurrengo egunean lanean lo gutxi eginda ibili behar. Gu oso zailduta geunden, eta Ordiziatik Urkira denbora gutxian joaten ginen. Oraingo gazte bati oso gogorra egingo litzaioke bizimodu hura.

Gaur egungo krisialdia zuek ere ezagutu zenuten?

Krisialdi hau parragarria da, batzuk jakete ez eta beste batzuk nondik harrapatuko pentsatzen, baina egia esan, gure garaiko pertsonak krisialdi hau errazago eramaten dute eta gainera zerbaiti uko egin behar badiogu, ez daukagu inongo eragozpenik eta edozein gauzarekin pasatu gintezke.

Ogia nola banatzen zenuten?

Orduan gehienak zaldien bidez tiratutako karroekin ibiltzen ziren, gure okindegi-koek “Opel” markako auto zahar bat zeukaten, hura kargatu eta Ordizia, Beasain, Lazkao eta Laskaibartik buelta egiten genuen, ogia banatuz. Ogia banatzeko korneta jo eta “panadero” oihukatzen genuen, horrela bizilagunak bazekiten ogi saltzailea etorri zela eta guregana gerturatzen ziren. Ogia banatzeko erabiltzen genuen kotxea zaharra zen, eta hondatzen bazen, bizikleta baten atzean parrilla ipini ogi zestoekin eta aurrera, ogiak kargatu, banatu eta bukatzen zirenean berriro kargatzera. Orduan eta ogi gehiago kargatu, orduan eta itzuli gutxiago egin behar izaten zenituen, baina gehiegi kargatuz gero, bizikleta mugitzea asko kostatzen zen, eta egia esateko, gure kotxe zahar hura nik nahi baino gehiagotan hondatzen zen

Beraz, gaztetatik autoa gidatzen?

Bai, pixkanaka-pixkanaka auto zaharra erabiltzen hasi nintzen, eta gidatzen ikasi nuen. Horrela hemezortzi urte bete nituenean, Ordiziako Telleria autoeskolara joan, eta bi egunetan bi ordu ibilita, gidatzeko baimena atera nuen. Azterketa egitera Arrendo izenekoa etortzen zen eta Zaldibia aldera eramane ninduen “Renault 4” batean. Gidatzeko baimena le-

henengoan atera nuen.

Niri ondo etorri zitzaidan, baina baita okindegikoei ere, ogia banatzeko kotxea inongo eragozpenik gabe erabili nezake-elako.

Ezustekorik izan zenuen ala?

Bai, behin Beasainen, Beltran izeneko Guardia Zibilak gelditu gintuen, eta ni nindoan gidatzen, baina baimenik gabe. Nire nagusiek larritasun ederra pasatu zuten, baina azkenean kuartelera joan eta nolabait moldatu ziren, ziurrenik propinarene bat emango zioten.

Ogia kobratzeko garaian, nola egiten zen?

Urte haietan diru gutxi maneiatzen zen eta miseri handia zegoen, horregatik, ogia gauza preziatua zen. Gainera, familia handiak izaten ziren eta aho asko bete beharra zeuden. Normalean dirua kobratzerakoan, egunerokoa izaten zen, bakarren batzuei aste-koa egiten zitzaien, baina normalean egunerokoa. Jendeak “suma” eta “resta”k ondo egiten zituen, nahiz eta eskola gutxi izan, jendeak asko begiratzen zion diruari.

Eta zure kasuan?

Ni okindegian lanean hasi nintzenean, nire aitak kartila bat ireki zidan eta urte bukaeran begiratu eta sekula gehiago ez zidan kartilarik eskatu, diru gutxi gastatu nuelako, irabazi nituen diru guztiak kartilan sartzen nituen. Egia esan dirua gastatzeko denbora gutxi neukan. Jendeak diru gutxi irabazten zuen, baina irabazten zuen dirua ondo zaintzen zuen eta ez zuen edozein modutan gastatzen

Nolatan utzi zenuen ofizioa?

Etxeko andrea zen nagusia eta negozioa eskualdatzea erabaki zuen eta etorri zen nagusi berria oso okerra zen, eta hemetzti urterekin okindegia uztea erabaki nuen. Nagusi berriarekin, goizeko 3:00etan lanean hasten ginenean, bera ez zen jaitkitzen eta hemezortzi urteko mutikoa joaten zen nagusia esnatzera alderantziz izan beharrean, aurreko gauean behar zen garaian ez zelako ohera joaten, taberna asko gustatzen zitzaion. Fundamentu eskasa zeukan.

Hemetzti urterekin?

Urkira itzuli nintzen. Gure baserri eta ingurukoetan iturriko ura ipintzen zebiltzan Ordiziako Nazabal eta Mendizabal itur-



Gakotxe baserria

ginak orduan, eta horrela, haiengana lan eske joan, eta iturgin bezala hasi nintzen lanean.

Jubilatu arte iturgin?

Bai, baina hogeit urterekin, Nazabalekin iturgin bezala nabilela, Alemaniara lanera joateko aukera sortu zitzaidan. Horrela Nazabalen iloba eta ni Alemaniara joan ginen, 1960ko abenduaren 15ean (data seinalatua, Balduino eta Fabiola ezkondu zirelako). Momentu hartan, orain bezala lan eskasia zegoen, eta Alemaniara iturgin bezala lan egitera joan ginen, bertako enpresa txiki batera. Oraindik erlazioa mantentzen dugu haiekin.

Beraz, alemanieraz ere jakingo duzu?

Beno alemanieraz defendatzen naiz, ez dut perfektu egiten, baina moldatzen naiz. Ikusten duzue, Urkiko seme batek gaztelania Tuteran eta alemaniera Alemaniaren. Itsasondon jaio, baina asko mugituta batetik bestera.

Zenbat urte bertan?

Zazpi urte pasa nituen, gu 2.go Mundu Gerraren ondoren joan ginen, eta Stuttgart erdia puskatua zegoen. Beraz, lan izugarria zegoen bertan, bazter guztiak altxatzen ari ziren. Ondoren, itzuli nintzenean, iturgintza negozioa nire kontura ipini nuen eta jubilatu arte autonomo bezala aritu naiz, orain semeak jarraitzen du negozioarekin.■

2 galdera motz

Zer duzu gustuko Itsasondon?

Garai batean itsasondoarrek urkitarrak basati edo basapizti bezala tratatzen gintuzten, baina orain gauzak asko aldatu dira eta urkitarrak kontuan hartzen dira, eta gauza asko egin dira Urkirako. Gainera, Itsasondok, azken urteetan Beitiko inguruetan egin diren etxe berriengatik, itxura ederragoa dauka.

Inoiz izan duzun amets bat?

Gutxi gorabehera, azken urteetan gure kapritxoak betetzeko aukera izan dut eta ez dut ezer faltan botatzen. Ordiziako Arantzegi baserria erosi genuen, behetik hasi eta goraino berritu genuen, eta hemen bizi gara gustura, nire ametsetako bat betez.

Itsasondoko izaki bizidun bereziak

Itsasondoren kokapena dela eta, bertako klima “ozea-niko epela” da. Horren arabera, baldintza heze eta epelak ditu, prezipitazioak urte osoan zehar banatuz eta uda garaiko lehorterik gabe. Klimak inguruko landaredia baldintzatzen du, ezinbestean, eta hori horrela, gure lurraldean zuhaitz hostogalkorren basoek nagusitu beharko lukete.

Bertako baso naturalek, ordea, udalerriaren %43a okupatzen dute pagadi, harizti, baso misto, lizardi eta haltzadien artean. Baso horiek mendialdean eta %17 suposatzen duen landa-eremuaren bueltan aurkitzen dira. Bi habitat mota horiek tartekatzean, basoak eta landa-eremua, *kanpiña atlantikoa* deritzen paisaia sortzen da.

Kanpiña atlantikoak, Murumendiko harkaiztiaren presentziarekin batera, onura ekologiko zein paisajistiko handiak suposatzen ditu inguru honetarako. Eta horiek dira hain zuzen ere, bertako fauna zein flora berezien euskarri. Horrela, ondorengo irudietan inguru hauetan topatu ditzakegun fauna zein flora espezie berezi batzuk erakutsi nahi dira:

Okil txikia

Izen zientifikoa: *Dendrocopos minor*
Habitata: hostogalkorren basoak (harizti eta ibai-ertzeko ibarrak batik bat).
Babes maila EAE: interes berezikoa



Lilipa txikia

Izen zientifikoa: *Narcissus asturiensis*
Habitata: gandorretako larreetan, zelaiguneetan eta pagadien, erkameztien eta hariztien argiguneetan.
Babes maila EAE: interes berezikoa



Izen gabea

Izen zientifikoa: *Saxifraga losae*
Habitata: kareharrizko haitz bertikal eta itzaltsuetako arraila hezeak.
Babes maila EAE: bakana (Gipuzkoako populazioa bakarra Itsasondon dago).



Ibai-karramarro arrunta

Izen zientifikoa: *Austropotamobius italicus* (lehen *A. pallipes*)
Habitata: kontserbazio egoera oneko erreka eta ibaiak.
Babes maila EAE: galtzeko arriskuan.



Belatz handia

Izen zientifikoa: *Falco peregrinus*
Habitata: barnealdeko haitzak eta itsaslabarrak.
Babes maila EAE: bakana.



Bisoi europarra

Izen zientifikoa: *Mustela lutreola*
Habitata: landare ugari dagoen ur ibilguetan, lakuetan, urtegietan, paduretan eta lursail zingiratsuetan.
Babes maila EAE: galtzeko arriskuan



Arkanbelea

Izen zientifikoa: *Lucanus cervus*
Habitata: Zuhaitz hostozabalen basoak helduak eta zuhaitz mugarrituak.
Babes maila EAE: interes berezikoa



Eta jakin, badirela oraindik Itsasondoko larre, baso, ibai-ertz eta harkaiztietan EAE mailan bereziak kontsideratzeagatik babestu beharreko fauna eta flora espezie gehiago; saia gaitzen guzti horiek mantentzen!

Gazteria saila

Udako oporren ostean, Gazteria Saila hasi da ikasurte berria prestatzen. Hori dela eta, gazteen, nerabeen, haurren eta guraso txokoen atalerako helburuak eta estrategiak zehaztu dira.

Honako hauek dira zehaztu diren helburuak:

Gazteen atalerako helburuak:

- Informazioa eta orientazioa
- Herriko eragile aktibo izan daitezen sustatzea
- Garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak jartzea

Nerabeen atalerako helburuak:

- Jakin nahia eta oinarritzko informazioa erraztea
- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea. Autonomia
- Errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera eta nola aldatu daitekeen pentsatzera bultzatzea. Gazte izateko bidean zubi lanak.

Haurren txokorako helburuak:

- Protagonismoa haurrari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen erabakitzeko.
- Haurrek bizi duten ingurua ezagutu dezatela, komunitateko ekintzetan parte hartuz eta herri sentimendua handituz.
- Jolasteko aukera izan dezatela, jolas berriak eta modu berriak ikasiz

Haur eta guraso txokoetarako helburuak:

- Gurasoekin elkarlana: beraiekin ekintzak egitea
- Gurasoekin harremana sistematizatzea
- Gurasoentzako interesgarriak izan daitezkeen ekintzak gauzatzea

Oporretako ekintzak

Uztaillean ekintza ugari egin ziren gazteekin. Hona hemen argazki batzuk:

GAZTELEKUAREKIN ETA LUDOTEKAREN IKASURTE HASIERA

Itsasondoko gaztelekua 11-17 urte bitarteko nerabeentzako ekipamendua da. Ludoteka, berriz, 5-10 urte bitarteko haurrentzat.

Bere helburu nagusia da herritar aktiboak sustatzea eta parte-hartzea bultzatzea. Haurtzaroaz eta gaztetasunaz gozatzeko aukera ematen zaie, eta aldi berean haur, nerabe eta gazteen parte aktiboa sustatzeko ikasketa prozesu iraunkor bat bultzatzen saiatzen da.

Herrian parte hartzeak, beren kasa antolatzeak eta hainbat proiektu burutzeak esperientzia atsegigarriak eta dibertigarriak ekarriko dizkie, eta horrekin batera, beraien emantzipazio prozesurako entseguak eta aurrerapausuak izango dira.

Ekipamendu hauek, beraz, ekintzak egiteko baino zerbait gehiagorako dira. Etorri eta ezagutu gaitzazu! ■



Gaztelekua:

Eguna: ostirala. Orduetgia: 17:00-20:00

Ludoteka:

Eguna: astelehena. Orduetgia: 17:00-18:30



Sudur gorrien iraultza

Txikiak ginela milaka barre eragin zizkiguten pailazoak dira Pirritx eta Porrotx, ederto pasatzen genuen. Hasieran, Takolo, Pirritx eta Porrotx ziren pailazoak, baina urte askoren ostean, Takolo erretiratu egin zen. Orain, Pirritx eta Porrotx daukagu, Marimototxen laguntzarekin. Orain dela egun batzuetatik pil-pilean dagoen gaia da gure pailazo maiteena, Aiora Zulaika "Pirritx" eta Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"-ena. Izan ere, EitBn ez ateratzeko eskatu da, abertzaleak izateagatik.

Pailazo hauek EitBekin haurrentzako eskaintako tartea antolatzen ari ziren ETB1 en. Carlos Urquijok, Euskal Gobernuako delegatuak, EitBri pailazoen saioa bertan behera uzteko eskatu dio. Berak dioenez, pailazoak ez dira eredu garriak haurren hezkuntzarentzat, baina ez dira ohartzen pailazo hauek direla haurrei milaka eta milaka irribarre ateratzen dizkietenak. Marka da gero pailazoak ilegalizatu nahian dabilzanak horren pailazoak izatea!

Lotsagarria iruditzen zaigu koloretako irriak oparitu dizkiguten pertsonak debekatu nahi izatea, haur baten irria politikaren gaineratik baitago. Izan ere, bi kontzeptu nahasten ari direla uste dugu, eta gainera, haurren irria egunekotasunera pasatzen da; islatzen dituzten zoriontasuna ez da une batekoa, etxera, ikastolara, plazara... ere eramaten baita irria. Koloreak kendu nahi dizkigute, baina irribarreak margotzen jarraituko dugu.

Pailazoek mundua poztzen digute, koloretako ametsetara eramaten baitituzte haur asko eta asko, Euskal Herrian irri askoren sortzaile direlarik. Lan asko egiten dute euskal haurren alde. Kalte egiten al du pertsonen irrien askatasunak? Barre egitea ez da delitu, gora irrien lagunak! Katxiporreta! ■



Ainhua, Josu eta Jone Takolorekin (1998)

Hizkuntzak komunikazioaren giltzarri

Azken egun hauetan, Olinpiar Jokoak direla eta, hizkuntzaren gaiak oihartzun handia izan du, eta ingeles maila ona izatearen garrantzia agerian gelditu da.

Hona hemen, herritarrei egin dizkiegun galderak.

- Ingeles maila ona al duzu?
- Zein hizkuntza hitzegiten dituzu?
- Atzerriko zein hizkuntza ikatea gustatuko litzaizuke? Zergatik?



ANA, 41 urte

- Ez, ez daukat maila ona.
- Frantsesa, euskara eta gaztelania hitz egiten ditut.
- Ez, momentu honetan ez.



MARIA DOLORES, 75 urte

- Bat ere ez.
- Euskara eta gaztelania hitz egiten ditut.
- Orain jadanik adinagatik ez. Gure garaian ez genuen aukerarik izan, frantses pixkat egiten genuen, baina.



JOSE, 52 urte

- Ez, ez dut. Umetan frantsesarekin hasi ginen eskolan, gero ingelesa sartu ziguten; eta hori dela eta, ez batean eta ez bestean, ez genuen maila egokirik lortu.
- Euskara eta gaztelania.
- Ingelesa ikasiko nuke. Gaur egun eta mundu mailan, matematikak baino garrantzitsuagoa dela uste dut ingelesa ikatea.



MIGUEL, 33 urte

- Ezta ideiarik ere.
- Euskara eta gaztelania.
- Ingelesa ikasiko nuke, batez ere, atzerriko musika taldeen letrak ulertzeko, adierazi nahi dutena ulertzeko.



Pentsio sistemaren alde eta gizarte murrizketen kontra

Pentsioak ukitzen dituenak ez dauka nire botoa" lelopean, Itsasondoko jubilatua eta zenbait herritarrek elkarretaratzea burutuko zuten udaletxearen aurrean irailaren 12an, arratsaldeko 19:00etan. Modu horretan pentsioak KPI-aren -Kontsumorako Prezioen Indizea- neurri berdinean igotzea eskatu nahi diete politikariei. Horrela eman dute aditzera ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN GIZARTE ZENTROEN GIPUZKOAKO ELKARTEAK argitaratutako komunikatu batean.

- 1 GIPUZKOAKO JUBILATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEAK (AGIJUPENS) Zuzendaritza batzordeko kide guztien eta 71 Herri Batzorderen onespenearekin, ohar honen bidez Gipuzkoako gizarte osoari adierazi nahi dio, ez dagoela ados pentsio sistemaren iraunkortasunari buruz "adituek" argitaratu dituzten ondorioekin, ez eta GURE ESKUBIDEEN KONTRA dagoen SISTEMA INPOSATZEKO Gobernuak egin duen bidearekin ere.
- 2 Murrizketak justifikatzeko erabiltzen duten krisi hau boteretsuen handinahiak sortua da, mundua menperatu nahi duten pertsonena. Gobernuak babestutako sistema honek sortu zuen krisia, fikziozko aukerak baliatuta herritar guztiak aberats bihurtzearen bultzatu nahi duena.
- 3 Gobernuak burutu nahi dituen egitasmo eta helburu horiekin izututa gaude; ez dugu ulertzen, eta uko egiten diogu pentsioen zenbatekoa bizi esperantzarekin lotze horri. Eta, gainera, pentsioak murriztea adinean aurrera zoazen heinean. Badirudi pentsiodunek diru gutxiago behar dugula, estatistikek urte gehiago bizi garela adierazten dutenean. Ez dugu ulertzen pentsioen zenbatekoa, gutxienez murriztenak direnak, pertsonaren oinarritzko beharretatik at uztea.
- 4 Gure alarma eta kexua erosteko ahalmenaren defentsatik haratago doa, eta gure seme-alaben eta biloben eskubideen aldeko aldarrikapena da; pentsiodunak izango diren pertsona guztien alde eta, batez ere, egoera larrian daudenentzat. Esaten dugun guztia kalean eta publikoki errepikatuko dugu. Eta gizarte osoa elkartu duen leloa aurreratzen dizuegu:

PENSIOAK UKITZEN DITUENAK EZ DU JASOKO NIRE BOTUA! ■

Konponbideari erasorik ez!

Euskal Presoen eskubideen alde jarduten duen Herrira mugimenduaren aurka burutu den polizi operazioaren inguruan, honakoa adierazi nahi dugu:

- Lehenik eta behin, gure besarkadarik estuena eta elkartasun osoa atxiloturiko 18 lagunei.
- Presoen eskubideen errespetuaren aldeko euskal jendartearen gehiengo zabalaren aldarrikapena kaletik ateratzeko saiakera bat da polizi operazio hau. Euskal presoek dagozkien eskubideen aldarria kriminalizatu eta desagerrarazi nahi du Estatu espainiarak.
- Presoen auzia erabiltzen du Estatu espainiolak konponbide prozesua blokeatu eta zapuzteko. Bakearen aurka erabiltzen du Estatu espainiarak euskal presoek ezartzen dien espetxe politika kriminala. Bereiziki larria da preso politikoei bizi arteko zigorra de facto ezartzeko neurriak indarrean jarri izana: 197/2006 sententzia, kondena luzeak beteta ere zigorra luzatzen duen dotrina gisa ezagutzen dena; erredentzioak indargabetzea; zigorraren ¾ beteta ere askatasun kondizionala ukatzea; eta kondena maximoa 40 urtera luzatzea edo Frantziako espetxeetan urte mugarik gabeko kondenekin zigortzea. Tratu krudela areagotuz joan da, isolamendu eta bakartzea hedatuz eta normalizatuz, dispartzio politikan sakonduz etengabeko traslado arbitrarioen bitartez, besteak beste.

- Espetxe politika krudel honen aurrean, presoen eskubideen inguruko adostasun handia dago euskal jendartearen. Eskubide guztiekin Euskal Presoak Euskal Herrian batzea; Kondena bete dutenak, ¾ bete dituztenak eta gaixotasun larriak dituzten presoak kalera ateratzea; eta isolamendu eta bakartzearekin bukatzea. Aldarrikapen guzti hauek euskal jendartearen artean oso zabaldua daude eta gehiengo zabal batek bereak egin ditu. Herrira-k eskubide guzti hauen aldeko lana egin du, herriz herriz, aldarrikapen hauen defentsan kolore guztietako herritarrak bilduz.
- Beraz, Euskal Herria osoaren aurkako operazio bat da hau, konponbide eta bakearen aurkakoa. Eta gaur pairatzen ari garen polizi operazio honek herri bezalako erantzun zabal bezain irmo bat behar du.
- Horrela bada, bi dei nagusi luzatu nahi ditugu gaurkoan:
 - Batetik, deituko diren mobilizazio eta ekimen guztietan masiboki parte hartzeko deia luzatzen dugu. Jendartearen gehiengo zabalak adierazi behar dio estatu espainiarrari ez dugula horrelako operaziorik nahi, horrelako operazioak denon aurkako eraso bat direla. Herri honek konponbidea behar duela, herri honek konponbidea nahi duela, eta estatu espainiarrak horrelako operazioekin amaitu behar du betirako.
 - Bestetik, presoen eskubideen aldeko aldarrikapena kaletik atera eta kriminalizatu nahi duten honetan, bete ditzagun Euskal Herriko kaleak, gure etxeetako balkoiak eta txoko guztiak "Euskal preso eta iheslariak ETXERA" lelodun txartel eta banderolekin.
- Tantzaz-tanta, euskal presoen eskubideen aldeko itsoa osatu ditzagun. ■



Diru sarrerak bermatzeko errenta

Egun bizi dugun garai gogor honetan, gizarteko zati handi batentzat, hilero gutxieneko diru sarrerak izatea ez da lan erraza. Batzuetan, langabezia dela eta, askok ez dute lan baten truke diru sarrera horiek lortzeko aukerarik; beste batzuetan, lana galdu dute, eta berriki eman diren langabezia prestazioaren aldaketak direla eta, diru sarrera horiek oso urriak dira; edo azkenik, nahiz eta enplegua izan, enplegu horren ordu kopuruak direla eta, edo lan baldintza kaxkarrak direla eta, azken finean, etxera ez da sartzen gutxieneko beharrak asetzeko beste diru.

Horrelako egoerei aurre egiteko bakoitzak bere eskuetan dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu: aurrezkiak, familia, kontraturik gabeko lanak..., baina batzuetan ez dira nahikoak izaten; eta orduan zer? Egokiena gizarte zerbitzuetara joatea da, eta pertsona edo familia horren egoera globalki eta beraiekin batera aztertzea. Baina, funtsean, diru sarrera horiek bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan aspaldidanik hilero errenta bat jasotzeko eskubidea dago. Izena ezberdinak jaso izan ditu, eta baldintzak eta ezaugarriak aldatu dira azken urteetan. Gaur egun, DBE (RGI erderaz) izena jasotzen du, Diru Sarrerak Bermatzeko errenta, alegia. Lehen, herriko gizarte zerbitzuetatik kudeatzen zen, eta orain Lanbide-k egiten du zuzenean.

Hona hemen jakin beharreko ezaugarri nagusiak:

Zer da? Hilero ordaintzen den diru-laguntza bat da, baliabide ekonomiko nahikoa ez duten pertsonen eta familiei oinarritzko beharrak estaltzen eta lan-esparruan txertatzen laguntzeko.

Oinarritzko beharrak estaltzeko baliabide ekonomikorik ez duten edo baliabide ekonomiko nahikoa ez duten eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsonentzat da. Lanik ez duten pertsonak, baliabide gutxi dituzten langileak, pentsiodunak, bestelako pentsio batzuen onuradunak, bizileku-baimenik ez duten atzerritarrak eta abar izan daitezke.

Zeintzuk dira baldintzak? Ohikoa den moduan, baldintza ugari ditu; hauek dira funtsezkoenak: 1) 23 urte izatea; 2) erkidegoan etenik gabeko hiru urteko bizilekua izatea; 3) Bizikidetzaren unitate bat osatzea eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez, eta noski, 4) baliabide nahikoa ez izatea.

Zenbateko errenta jaso dezaket hilero? Bizikidetzaren unitatearen arabera: 662.51 euro; bi kidez osaturiko unitatea, 850.72 euro; eta hiru kidez edo gehiagor osaturikoa, 941.06 euro.

Azpimarratu behar da, errenta honen onuradun askok ez dutela aipatutako kopuru osoa jasotzen, bai zik eta kopuru horretara iristeko falta zaiena. Adibidez, pentsio oso baxuak dituztenak eta inongo baliabide gehiago ez duten adinekoak hilero 60 euro edo 100 euro jasotzen ari dira.

Noiz arte jaso dezaket? Berez, onuradunaren egoera aldatu arte, DSBa jasotzeko eskubideak indarrean jarraituko luke. Hori bai, onuradunak frogatu behar du bere egoeran aldaketak egiteko esfortzua egiten ari dela, formazio ezberdinak eginez, adibidez.

Informazio gehiago nahi izanez gero, gizarte zerbitzuetara jo edo Interneten (www.lanbide.net) begiratu. ■

Garai bateko itsasondoko festak elkarrikteta

Santi Mendizabal eta Inazio Iturrioz

(86 eta 93 urte)

Zaharrak berriko atari honetara garai bateko Itsasondoko festen inguruko kontakizunak berriro nahi izan ditugu. Santi Mendizabalek eta Inazio Iturriozekin aritu gara kontu-kontari eta haien ahotik jasotakoa bildu nahi izan dugu orrialde hauetan gure herriaren oroimen historikoari segida eman eta Itsasondoren eta bere herritarren bizi-istorioen mosaikoa osatzeko lanetan bigarren harria jarritz. Gozatu irakurle eta zuei bikote, mila esker:



Nola goatzen ditzuzte lehengo Itsasondoko festak?

Itsasondoren festak Ama Birjiña bezperatik hasten ziren. Hamabitan kanpaiak eta altsafuegok botatzen ziren eta geo arratsalden zazpi inguru hortan salbea izaten zuten elizan. Gure garaian Izalgo txistularik etortzen ziren ta haiek e kantatzen zuten. Herriatik kantatzea juten zienak gure osaba organista ta gero Milixio eta Nikolas Mujika zana eta hon osaba re bai, Joxe Manuel,(Santiri)... asko! Beste gaiñantzen gaztegek e aitzen zien. Hemen lñaki etorri zanen esaten zion apaizek “hi hemen Salbe de Eslava kantau behar diau!” Konpositore nafar harena kantatzen zan beti hemen, bozetan. Gero ia ez, hura jun zan ta... akabo.

Iganden, Ama Birjiñatan berriz, meza nausie, bozetan kantautakoa izaten zan. Ordun latiñez kantatzen zan ta “gaudeamus onis sin domino ta”... Aurrena aitaren iñ ta hola hasiko zan kantatzen. Ordun hala zan ta hala kantatzen zan! Ezohikok ta latiñez ta... ze esaten zan etzuen jakingo baiño!

Karrerea re eoten zan, bizikletana, ta korrika apustuk e bai. Ordun bazien herriko txirindularik... Imanol difuntue ta Joxe kaxkardi ta, aurretik, Teodoro Lete, hoi ona zan, ta Anda Joxe bestea! Joxe Lukusingoa difuntue ta Fernando Intxaurrendokoa! Asintxo bea re, korrituko zon harek e! Gure anaiek e irabazi zon hogeita hamarren kopea (Inaziok)! Agarreko Martin korrika ibiltzen zan! Zenbait alditan herri kirolak e izaten zien ta baita pelotarik e baiño herrin bertakon partiduk! Guaiñ baiño afizio gehio izaten zala uste det!

Gero bakoitzek bere etxan bazkaldu... ze konbidatuk e etortzen zien familikok. Emakumek e bezperatik hasten zien ta goizen ze esanik ez! Berokin ta... sukin e, berriz, bakizu! garai hartan etzeon guaiñ bezelako suik ta... Emakuentzako desastrea izaten zan! Etxea bete jende ta...

Ama Birjiña atsaldan gaiñantzen dantza. Txistularik ta dultziñerok e izaten zien. Haik e herrikok! Joxe Inazio ta Juan dultziñerok ta beste bat, hor... Ordizitik etortze huan ba (batak besteari)... Patxi haundin semea o zein zan ba! Dultziñerok beti etzien, ez dakit urtero izaten zien... txistularik nik gogon detela Izalgok ta, lehen leno, Segurakok uste det etortzen ziela, Telleria anaiek zien hoik! Lazario, Rikardo ta bestea ez dakit nola zan...

Nun izaten zan hoi, Kontsejue zaneke hortan?

Plazea zan hor, piñue erdi-erdin zola. Lenau meiku-etxea ta aiuntamientoa danak bat zien, danak toki baten zien. Puesto han eukitzen zon Don Martin meiku zanak e! Meiku-etxea, aiuntamientoa ta geo bean segidan eakxin zeon etxea beragon, Etsaiene esaten genion... tarte hortan gaten zan. Aiuntamientoa bota in zuen gero kamiñoa itteko garaiñ. Hau herri txikie baiño kanbiau in da haure!

Festatan jende asko etortzen zan, trenetatik zintzilik! Aldameneko herritan festak bazien errespetau itten zien ta hala jendea aldameneko herri ta juten zan. Honea kantidade jende etortzen zan! Beste urte bat o biñ, pesa autobusetakok e jarri zuen honuntzaiño linea! Danantzako festa zan!

Gero, senidek eo kanpon zeuzkienak eta, bixitatzea etortzen zien eta... Nik Joxe Anjel zanai entzun nion... hura sekretario zan ta gero gerra hasi zanen kendu in zuen, nazionalista zan ba hura, baiño fiñ hoitakoa e! Harrek esaten ziñ nei “garai baten familiartekok etortzen hittuanen festa Ama Birjiña eunen ta festa bigarrenen meza eiten huan ta meza entzun ta geo, bazkal-aurretik, arta-sorok ikusi ta garik ta nola izaten zien orduko bilduta, arta-sorok eta nolako zea zeuken ta...” hoi dauket gogon.

Festak hiru eun izaten zien: bezperea ta Ama Birjiñe eune ta bigarrena, 15a eta 16a.

Gerra ondorengo urtetan festak berdin seittu zuen?

Pixkanan-pixkana kanbiatuz jun die. Aurreneko haik izan zuen... beste leku batzutan uzten zuen agarraun dantzan ta hemen, berriz, ez! Ordun, urte baten autobuse hartu ta Gabiria dantza ta han uste det armau in zuela. Ez dakit ez ote zien harrika eman! Nola hasten dien gauzak e! Han itten emen da ta besten e bai, ta azkeneako... Garai baten e eliza juteko mantaliñakin ta jun behar izaten zuen emakumek!


Ze izango zan festatan kontsejun antolatzen zien?

Gaztek komisiu bat antolatzen zuen ta haik aiuntamientokin hitzeitten zuen. Ez dakit izendauta ematen zitzaizen dirukantidad bat eo... zoeze ematen zien, asko o gutxi, beti juxtu. ■

19. Ibilbidea

Segura-Santa Barbara-Segura

Deskribapena: Segurako plazan hasiko dugu ibilbidea. Igerilekurantz abiatuko gara eta hau atzean utzi eta gero bideari gorantz jarraituko diogu. Aurrera egin eta hiru adarreko bidegurutze batera iritsitakoan, erdikoari jarraituko diogu. Lurrezko baso pista nahiko zabala da. Hortik, Pagamuño baserrira iritsiko gara. Base-riaren ondotik pasatuko gara. Hortik gertu Mendotze baserria dago. Pista beretik jarraituta, lepo moduko batera iritsiko gara, eta bertan burnizko gurutze bat dago kalbario moduan. Gure aurrean hiru bide ikusiko ditugu. Santa Barbara ermitara igotzeko erdiko bideari jarraituko diogu, beti goraka, ermitarekin topo egin arte. Ibilbidearekin jarraitzeko, gurutzea dagoen bidegurutzera bueltatuko gara. Hemen ezkerreko bideari jarraitu, eta beste pista batekin topo egindakoaan eskubira hartuko dugu, eta beheraka, errepidera iritsiko gara. Errepideari jarraituz, Zegamara doan bide nagusira iritsiko gara. Bertan, Segurako norabidea hartuko dugu bidegorritik. ■




Iraupena: 4 ordu

Ibilbidea:
Segura - Santa Barbara:
 ordu bat eta 30'
Santa Barbara - Segura:
 bi ordu eta 30'




01 Jarraitu beharreko bidea



02 Pagamuño baserria



03 Mendotze baserria




04 Kalbarioko gurutzea




05 Iturria



06 Santa Barbara ermita



07 Perratokia



08 Kartedi baserria



09 Urbistondo baserria

Segura 10



Egin dezagun denboran atzera bidaia bat...

Interneti esker, gure haurtzaroko momentuak gogoratu ditzakegu.



80. eta 90. hamarkadan telebistako bideo-grabagailuak erabiltzen ziren gogoko genituen serieak, marrazkiak e.a. grabatzeko. Baina, bakarrik pribilegiatu batzuek zeukaten aukera hori.

Gaur egun, teknologia hori zaharkituta geratu da. Orain, DVD grabagailuak erabiltzen dira, formatu txikiagoarekin eta kalitate hobearekin.

Dena den, zenbat aldiz iritsi ginen berandu etxera gure gustuko programa grabatzeko? Edota ahaztu egin zitzaigun bideo-grabagailua programatzea, berandu edo goizegi emititzen zelako? Niri askotan, eta ziurrenik, zuetako askori ere bai.

Hala eta guzti, gaur egun, beste baliabide bat dugu: Internet. Interneti esker, denboran atzera egin dezakegu etxeko auklarian eserita gaudela. Duela 20 urteko serieak, marrazkiak, filmak, nobelak e.a. ikusi ditzakegu berriro.

Gauza bat proposatzen dizuet. Goazen 1982tik 1990era arte bidaia txiki bat egitera, urte horietan modan jarritako musika, serieak... gogoratzuz.

Nor ez da gogoratuko "Alf"-ez? Jateko platerik gogokoena katuak zituen extralurtarra...

Umore bikaina eta adin guztientzako telesaioa. Hala ere, akziozko serieak ere ikusi izan dira. Esan beharra dago, gainera, modan jarritako estiloa izan zela. "El equipo A" eta "El coche fantástico" ziren ezagunenak.

Ez dira ahaztu behar serie bikainak, "Corrupcion en Miami", "V", "Las Chicas de Oro", "Dallas" bezalakoak. Esan dezakegu 80. hamarkada urrezko hamarkada izan zela.

Baina, umeentzako zer serie mota zeuden? Momentu horietan, serie japoniarrak izan ziren gehien ikusten zirenak. Dragoi Bola izan zen famatuenetariko bat. ETBn botatzen hasi ziren, eta urte askoan emititzen jarraitu zuten. Usten dut denok ikusi dugula.

80. hamarkadan ere Heidi, Marco, Oliver eta Bengi, "Los Caballeros del Zodiaco" eta makina bat japoniar serie ikusi zitezkeen.

Baina, euskal marrazkiak ez ziren atzean gelditu. 1984. urtean, Kalabaza Tripontzia ikusteko aukera izan genuen.

Gaur egun klasikoak diren marrazki bizidun asko ere 80. hamarkadakoak dira: Pitufoak, "Picapiedrak", Gadget Inspektorea, Casper, Tom eta Jerry.... gaur egungo klasikoetan daude.

Baina, oso garrantzitsua da umeentzako "programa edukatiboak" esaten zaien serieak azpimarratzea. Famatuena "Barrio Sesamo" edota "Los mundos de Yupi" izan daitezke, baina Alaskak egiten zuen "La Bola de Cristal" izango da saiorik onena (eta niretzako onenetariko bat). Saio horretan, ez zen umeen inteligentziarekin jolasten, pertsona bezala tratatzen zituzten.

Horretaz aparte, lehiaketa asko ikusi izan ditugu garai horietan, hala nola, "Un, Dos, Tres", "El tiempo es Oro", "3x4", "Si lo sé no vengo"... ikusi izan ditugu telebistan. Hala ere, lehiaketen momenturik onenak 90. hamarkadan iritsiko dira, baina atal hori beste une batean azalduko dizuet.

Dagoeneko egin diogu errebaso txiki bat 80. hamarkadari; beste egunen batean 90. hamarkadari egingo diogu. Esan beharra dago, irudi hauek oroitzapen onak ekartzen dizkigutela. Baina, ez daude galduta, beti ikusi ditzakegu serie hauek (eta berriro gogora ekarri momentu horiek) Interneten. Interneti esker, gure bizitza markatu duten programak berriro ikustea pribilegio handi bat da, nire ustez.

Egin ezazue aproba: bilatu zuen gustuko izandako serie, marrazki edo telesaioaren baten izena Interneten. Baietz aurkitu; eta berriro ikusteko aukera emango dizue. Animatu zaitezte. ■

Andra Mari jaiak

Urtero lez, 2013an ere ospatu ditugu abuztuko Andra Mari jaiak. Aurten, ordea, festa batzordeko kideek zenbait herritarrekin hala adostuta, aldaketak izan ditu urteroko egitarauak:

Andra Mari egunaren bezperan, herriko zaharrenek afaria izan zuten Bizi Nahi jubilatuta elkartearen. Oraingo honetan, ordea, ez zen afalosteko musika saiorik izan, eta bertan elkartu zirenek inongo distrakziarik gabe kontu-kontari lasai aritzeko aukera aparta izan zuten.

Andra Mari eguna hasteko, urtero lez herriko txistulariak goiz eresiarekin itsasondoarrak ohetik altxatzeko ahaleginetan ibili ziren herrian barrena. Meza nagusiaren ostean, berriz, hamaiketakoak urteroko arrakasta izan zuen, sukaldariak prestaturiko guztia berehala amaitu baitzen. Oraingo honetan, ordea, ez zen bertsolaririk izan, urtetik urtera bertso eta bertso arteko txutxu-mutxuak isilaraztea gehiago kostatzen zitzaizela ikusita.

Goiza amaitu eta eliza atarian elkartutakoak bazkaltzera joan aurretik, toka txapelketa egin genuen, urtero bezala, goiko plazan.

Bazkalosteko pilota partidek ere gero eta zale gutxiago biltzen zutela ikusirik, aurten partidarik ez antolatzea adostu zen alde zurretik. Eguna amaitzeko, sagardo-dastaketa izan genuen herriko enparantzan, eta bertara joandakoen artean, 2013an zerbitzatutako sagardorik onena aukeratu genuen.

Uda igaro ostean, abuztuko festen inguruan jaso diren balorazioak onak izan direla azpimarratu behar da, eta egitarauaren egindako aldaketak nolabait ere beharrezkoak zirela uste dute. Dena den, ez guke artikulu hau amaitu nahi abuztuko festa hauek bizirik mantentzeko ahaleginetan jarraituko dugula esan gabe!



Urliko Iraileko jaiak 2013

Irailaren 14an, Gurutze Deunaren egunean, hasi ziren jaiak. Meza ondoren hamaiketakoa eta eguerdian bazkaria egin ziren LAJA II eta NARBAIZA trikitilariak alaiturik. Iluntzean, suziariak jaurti ostean eta trikiti saio baten ondoren, afaria egin zuten elkarteak, jangela bete-beterik zela. Gero, erromeria LAJA II eta NARBAIZA trikitilariak.

Irailaren 15ean (igandea), hamaiketan Itsasondoko haur eta guraso batzuek Urkirako bideari heldu zioten, batzuk txirrin-duaz, besteak korrika eta helduenak oinez. Urkira lehenbiziko Aitor Garmendia iritsi zen txirrinduan 24 minututan, bigarren Mattin Barandiaran korrika 25 minututan, jarraian Julen, Eñaut, Agustin, e.a. Azkenik, ordu bete ingurura, oinez heldu ziren guraso eta haur batzuk. Jarraian, meza hasi zen, hauek ondo merezitako hamaiketakoa egin zuten.

Eguerdian, elkarteak bete-beterik zela, bazkaria egin genuen. LAJA eta LUTXURDIO trikitilariak bertan izan ziren, giroa alaitzeko.

Arratsaldean, herri kirolak izan ziren. Ikusle ugari izan zen, eguraldia lagun.

Aizkoran, Anjel Arrospide eta Joxe Ugarteburu Joxe Mari Olsagasti eta Mikel Larrañagaren aurka aritu ziren. Aurten, iaz ez bezala, bigarrenak nagusitu ziren lehia estu eta bizi baten ondoren; tarte segundo apur batekoa bakarrik izan zen.

Iluntzean, erromeria egin zen egun osoan trikitia jotzen aritu ziren LAJA eta LUTXURDIO trikitilariak.



Iraileko festak

Aurtengo jaiak pasa berri diren honetan, atzera begira errepaso bat egitea dagokigu orain; programari begiratu ezker, aitortu beharrean gara aurtengoak ekintza beteriko festak izan direla. Itsasondoko herritarrok ordea, ederki aurre egin diogu erronkari eta deialdi guztietan parte-hartzea handia izan dela onartu behar dugu, giro ezin hobea sortuz herrian barrena.

Nahiz eta hasiera goibela izan genuen, ostiraleko jolasetako garaian euria ari baitzuen, larunbat eta igandean uda garaiko eguraldi paregabeaz gozatzeko aukera izan genuen. Eguzkia lagun, larunbatean herriko jaietara besteak beste hawaina, euli, Maddi-ren lagun ekuadortar, pirata, pailazo, punky, monster-hig, monja, dantzari, eta baita Kleopatra bera ere inguratu zitzaizkigun, giro paregabearen ezinbesteko partaide bihurtuz.

Aurtengo nobedadeen artean, larunbateko pailazo Patxin eta Potxin eta baita arratsaldetik gauera arte aritu zen DJ.a azpimarratuko genituzke. Azken honek, herritarrok aukietatik altxa eta beso, hanka, gerri eta buruak astinarazteko asmoa ekarri zigun, eta BAITA LORTU ERE!!!

Horrenbeste dantza egiteko sabela bete behar, eta horretarako programan izan dira aukera ugari hamaiketako, sagardo dastaketa etab.-ekin. Argi dago ostiraleko herriafariak arrakasta handia duela, baina kontuz, larunbateko paella jana itzala egiten hasi zaio eta, larunbat eguerdian 150 lagundik gora bildu baikinaren karparen itzalpean!!! Igandeko bazkarian 30 lagun bildu ginen arren, kantu herriko eta musikaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen. Iparraldeko Jokin eta bere lagunak giroa ederki alaitu eta goxatu zuten, bai horixe!!!



Urtero jaiak posible egiten dituzuen herritarrei eskerrak eman gabe ez genuke amaitu nahi. Guraso elkarteak (futbol-partida, tailer, dantza...), Arbel-Aitz elkarteak (sagardo dastaketa), kirol elkarteak (Altzagarate eta Beitiko igoerak). Bereziki, herriko gazteei eskerrak, tailerrak, buru-handiak eta jolasak dibertigarri eta erakargarri egiten urtero hor ditugulako; festa batzordeari guztia koordinatzen saiatzen delako; eta noski parte-hartzen duzuen guztioi, zuek gabe egiten den lanak ez bailuke zentzurik izango.

Besterik gabe, aurtengo jaiak gozatzeko zenituztelakoan eta hurrengo urteko jaietan elkar ikusiko garelakoan agurtzen gara. Mila esker!!!



(lorezaintza gomendioak)

Konpostajea

Naturan, berehala konturatzeko gara lurra materia begetala xurgatzeko gai dela, hala bertan sortzen diren landareak elikatuz. Lurra materia organikoak elikagai bihurtzeko tresna da. Gizakiak nekazal ekosisteman hondakin organikoak lurrra botata egiten duena, lurlean egindako konpostajea besterik ez da. Konpostajearen bidez, hilabete batzuetara murrizten dugu, gizakion laguntzarik gabe naturari urteetako lana suposatuko liokeena.

Konpostajerako materiala

1. Material organikoak
Mikroorganismoek euren lana egin dezaten, garrantzitsua da konpostari gehitzen zaion nitrogeno eta karbonoaren arteko erlazioa egokia izatea. 25-35/1.
Karbonoari gehitzen zaion materiala: lastoa, belarra, adarrak, hostoak, uzta hondarrak... Nitrogeno asko duten materialak: simaurra, txiza, hiltegietak hondakinak, lekadunak (dillistak, babak...)
2. Material ez-organikoak
Lurra. Ezingo du nahasketa osoaren %5a baino gehiago izan. Errautsak. Konposta potasioan aberasten dute. Fosforodun haitzen hautsa.
3. Gehigarri bereziak
Konposta adierazleak. Mikroorganismo askoko konposatua. Hartzidura (fermentazioa) azkartzen du.
Konposta zaharra. Mikroorganismoak mantentzeko balio du. Asuna. Burdina xurgatzea errazten du eta klorofila sortzen laguntzen du.

Eraikuntza eta mantenimendua

Oso garrantzitsua da materiala zulo batean ez lurperatzea, izan ere, aierik gabe material hori usteldu egiten da deskonposatu beharrean.

Konposta ez da burdin edo hormigoiaren gainean egin behar, lurrrarekin kontaktua izan behar du mikroorganismoak erraz sar daitezela.

Tontorra beti toki berean egitea komeni da, aurretik dauden mikroorganismoak aprobetxatzeko.

Fermentazioak aparteko giza laguntzarik gabe egin behar du. Bakar bakarrik ureztatu eta tarteka nahastu egin behar da. Prozesuaren iraupena bota dugun materialaren eta egin diogun tratamenduaren arabera da.

Konposta ongarri gisa erabili dezakegun jakiteko adierazleetako bat zizareak aurkitzea da, horiek baitira deskonponzio prozesuetan parte hartzen azkenetarikoa.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(enhezeta)

Tomate eta hegaluze entsalada

4 lagunentzako osagaiak:

3-4 tomate
400gr hegaluze
Oliba olio
Pinoiak
Tipula
Piper berdea
Ozpina, gatza

Prestakuntza:

Hasteko, oliba olio eltze batean berotuko dugu 55-60°C inguruan. Hegaluze xerra laukitan moztu eta gatzatu ondoren, oliotan sartu eta egosi arte utziko dugu sutik kanpo. Bestalde, tomatea xerratan moztuko dugu eta plater batean ipini. Pinoiak zartagin batean oliba tanta batekin erreko ditugu, kolore pixka bat emanez. Tipula eta piper berdea txikitu eta pinoiak gehitu, gatzarekin, olioarekin eta ozpinarekin batera.

Hegaluzea prest dagoenean, tomatearen gainean ipiniko dugu, eta aurretik prestatu dugun "vinagretarekin" goxatuko dugu.



Jose Ignacia Duhau
Rubiorena jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Liburutegiko buzoia eta arreta zuzena

Liburu erosketak

Honako liburu hauek erosi dira:

La lista de mis deseos
Las chicas de septiembre
El silencio de las palabras
Una canción para ti

Itsasondoko liburutegiak herritarrengana gerturatzeko pausu bat gehiago eman du. Alde batetik, buzoia bat jarriko da, eta bertan, edonork galderak, proposamenak, zalantzak argitzeko aukera izango du. Horretarako, buzoian bertan bota beharko du dena delakoa.

Bestalde, urritik abendura bitartean, hilean behin arreta zuzena eskainiko da. Arduraduna bertan izango da, zuzenean, zuen zalantza argitzeko, txartelak egiteko, arazoak konpontzeko. Arreta Egunak: urriak 1, azaroak 5 eta abenduak 10 dira.

Haurrentzako liburu berriak, herritarrek emanda:

Herritar askok etxean ziztutzen hainbat eta hainbat liburu ekarri dituzte haurrentzako eta nerabeentzako. Liburutegian daude jadanik, irakurgai. Liburu gehiago baldin badituzue etxean gustura hartuko ditugu liburutegian.

Lam zerbitzua:

Itsasondoko liburutegiak liburutegi arteko mailegu zerbitzua eskaintzen du. Libururen bat herriko liburutegian topatzen ez baduzue, zuen seme-alabei eskolan irakurtzeko eskatu dieten liburua ez baduzue topatzen, guk beste liburutegietatik ekartzeko aukera ematen dizuegu.

Zuek nahi duzuen libururen izena eta zuen txartel zenbakia eman eta guk sarean begiratu eta liburua topatuko dugu. Eskaera egin eta astebetera udaletxean bertan izango duzue liburua. ■

